

## HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO PROIEKTUEN DEIALDIA 2013-2015 ALDIRAKO

UPV/EHUko Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak, deialdi honen bitartez, irakasleek hezkuntza berritzeko ekimenak sustatu nahi ditu; ekimenek garatu behar dute, funtsean, IKD ereduaren barruan (ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa/aprendizaje dinámico y cooperativo). (<http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shikdhm/eu/>)

Deialdi hau Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasuna antolatzen duten printzipioen Legeak erregulatzen du, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren laguntza eta diru-laguntzen erregimenak (VI. Titulua).

### 1. DEIALDIAREN NORAINOKOA

1.1 Deialdi honetara aurkezten diren proiektu guztien helburuak izan behar du Unibertsitatean hezkuntza berritzen laguntzea. Horretarako, esku-hartze proposamen berritzaile bat egin beharra dago. Hezkuntza berritzea **idea bat martxan jartzea** dela uste da, IKD-ren ikuspuntutik irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzeko eta errazteko, batetik; eta prozesu horien gaineko jakintza sistematiko eta hausnartua sortzeko, bestetik.

1.2.- Hezkuntza berrikuntzarako proiektuen deialdi honetarako **nahitaez betebeharrekoak**:

- a) proiektuaren oinarri ikasleekin batera abian jarriko diren proposamen berritzaileak izan behar dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak zuzenean bultzatuko dituztenak.
- b) Titulazio bereko edo desberdineko maila, modulu edo gai bera lantzen duten irakasle taldeak izan behar dira, eta proiektuaren koordinatzailea UPV/EHUko irakaslea izan behar da.

1.3.-Bereziki kontuan hartuko dira honako hauek dituzten proiektuak:

-baldin eta Docentiaz programan, edozein deialditan, eta ebaluatua izan denean, parte hartu duten irakasleez osatuta badaude.

-baldin eta berrikuntza gauzatuko den ikastegiko Kalitate Batzordearen babesak badute; ulertuko baita erakundeak berak bultzatutako proiektutzat hartzen direla eta EHUNDU programan eta UPV/EHUren 2012-2017 bitarteko Plan Estrategikoak graduatarako zehaztutako garapen politikekin bat datozela.

- baldin eta irakasle berrien (unibertsitatean lanean bost urte baino gutxiago daramatzaten irakasleak), ikasleen, kanpoko profesionalen edota beste unibertsitateko irakasleen parte-hartzea badute.

1.4.- Deialdi honetan, ondokoak dira bultzatuko diren **gaiak** eta horietako bakoitzean **lehentasuna izango duten lerroak**:

Gaiak	Lehentasuna duten lerroak:
Ikasleekin ikasteko metodologia aktiboak (kasuzko metodologia, problemetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza...) erabiltzea helburu duten proiektuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b><u>Maila/modulu arteko eta disziplinarreko ekintzak erabilia</u></b> ikasleentzako metodologia aktiboak diseinatu, ezarri, bultzatu eta zabaltzen dituzten lan taldeak (koordinatzailea HELAZek metodologia aktiboen arloan akreditatutako irakasle bat izango da).</li> <li>- Metodologia aktiboetarako balidatutako materialaren <b><u>erabilera</u></b> bultzatu, ezarri eta ebaluatzen duten lan taldeak (adib.: irakasgaia) (koordinatzailea HELAZek metodologia aktiboen arloan akreditatutako irakasle bat izango da).</li> </ul>
Zeharkako gaitasunekin lotutako gaiak (komunikazioa, generoa, etika, adimen emozionala, talde lana, ekiletza, jasangarritasuna...) bultzatzen dituzten proiektuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle talde aktiboak<sup>1</sup> (graduak, maila/modulukoak) edo epe laburrean lanean hasitako direnak, baldin eta lankidetzan arituta zeharkako gaitasunak diseinatu, garatu eta ebaluatuko badituzte.</li> </ul>
Graduak ikasketetan ikasleek beren kasa ikastea sustatzen duten proiektuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikaskuntza aktibo eta autonomia diseinatu, garatu eta ebaluatzen saiatzen diren irakasgai bateko edo irakasgai batzuetako irakasle taldeak. (Rol jokoak, simulazioak, ikerketan oinarritutako ikaskuntza <i>Inquiry based learning</i>,...)</li> </ul>
Graduetan curriculumak modu berritzailean garatzea erraztuko duten proiektuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastera bideratutako tutoretza lana diseinatu eta garatuko duten lan taldeak.</li> <li>- Gradu amaierako lana, ikasleek kanpoan egiten dituzten praktikak.... diseinatu, praktikan ipini eta ebaluatuko duten lan taldeak.</li> </ul>

<sup>1</sup> Lan talde aktibotzat hartuko da zeharkako gaitasunetan lanean hasita egonik Irakasle taldeak koordinatzeko prestakuntza/ Formación para la coordinación de equipos docentes programari jarraituz akredituta koordinatzaile baten zuzendaritzapean lan egiten duena.  
([http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/files/2011/05/Formac\\_coord.EHUNDU\\_global1.pdf](http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/files/2011/05/Formac_coord.EHUNDU_global1.pdf))

1.4 Deialdian hauek ez dira sartzen: irakasgaiak Goi Hezkuntzarako Europar Eremuko irizpideetara egokitzeko proposamenak eta ikasturte osorako ECTS irakasgaiak koordinatzeko esperientziak.

1.5 Ez dira onartuko eskatzaileek lehenago landu dituzten eta aurreko deialdietan laguntzak jaso dituzten gaietarako proiektuak, salbu argi eta garbi azaltzen bada gairen alderdi berriak sustatzea dela asmoa.

## 2. ESKARIAK

2.1- Proiektuek UPV/EHUko irakasle taldeen esku egon behar dute. Kide bat taldeko koordinatzailea izango da, eta baita deialdiko eskatzailea ere; halaber, koordinatzaileak SAE/HELAZekin lotura izango du.

2.2- Proiektuek bi ikasturte iraungo dituzte, 2013-15 aldikoak, hain zuzen.

2.3- Indarrean dagoen HBP batean (2012/2014 deialdia) lanean ari diren irakasleek ezin dute deialdian parte hartu.

2.4- Irakasle batek ezin du deialdi bereko HBP proiektu batean baino gehiagotan parte hartu.

2.5- Eskaerak aurkezteko epea amaituko da Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzako iragarki taulan, Campusetako Errektoreordetzetako iragarki tauletan (ehutaula) eta deialdi hau argitaratzen den egunetik hasi eta hilabete batera; deialdia sinatzen den egunean argitaratuko da.

2.6- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hamar egun naturalera, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzak osatuta eta osatu gabeko eskaeren zerrenda argitaratuko du bere iragarki taulan eta Campusetako Errektoreordetzetako iragarki tauletan (ehutaula). Eskaera horietan falta zaizkien datuak ere zehatz-mehatz adieraziko dira, eskaerak osatzeko. Eskatzaileek hamar egun natural izango dituzte dokumentazioa osatzeko, zerrenda argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Akatsak konpontzen ez dituenak uko egingo dio eskaerari.

2.7- Jarduera honetarako diru-laguntza jasoz gero, ezin da helburu berdinarekin beste erakunderen batek emandako diru-laguntzarik jaso.

2.8- Proiektuek gehienez 10 orrialde eta eskariaren eremuan (1. eranskinean) agertzen diren atalak izango dituzte.

2.9- Eskaerak zuzendu behar zaizkio Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuko (SAE/HELAZ) zuzendariari eta dagokien epean aurkeztu behar dira UPV/EHUko edozein erregistro ofizialetan, eta baita azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta

Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako edozein lekutan ere. Halaber, dokumentazio guztiaren kopia elektronikoko bat bidaliko da ondorengo helbidera: [sae-helaz@ehu.es](mailto:sae-helaz@ehu.es)

### 3. PUBLIZITATEA

Deialdi honetako laguntzen onuradun izan daitezkeenek informazioa behar bezala jasotzea bermatuko da; horretarako, prozedura hauek erabiliko dira, gutxienez:

3.1- Deialdia Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetzako iragarki taulan argitaratuko da.

3.2- Deialdia Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako Errektoreordetzako iragarki tauletan (ehutaula) argitaratuko da.

3.3- Deialdia SAE/HELAZen web orriaren bidez zabalduko da (<http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/>).

### 4. EBALUAZIOA ETA ERABAKIA

4.1- Laguntzak emateko erabakia Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeak hartuko du, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabetera, gehienez.

4.2- Ebaluazio Batzorde bat osatuko da, hezkuntza berrikuntzan ospe handia duten UPV/EHUz kanpoko irakasleekin. Batzorde horren helburua da txosten bat egitea, laguntzak esleitzen dituen batzordeak kontutan har dezan.

4.3- Proiektuak prozedura honi jarraiki balioetsiko dira:

a) 1.2 atalean azaldutako derrigorrezko baldintzak bete behar dira. Baldintza horien balioespen positiboa ezinbestekoa da irizpideen arabeko balioespen fasera pasatzeko.

b) Puntuatzeko irizpideak

- Proiektuaren planteamendua eta edukia 1.4 atalean jarritako lehentasunezko gaiekin bat etortzea (gehienez 40 puntu).
- Berritzailea izatea (gehienez 20 puntu): originala izatea, ikasleen ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoan eragina izatea (IKD), jarduera eremurako egokia eta bideragarria izatea.
- Erakundeak berak bultzatutako proiektutzat hartutakoak (gehienez 15 puntu): ikastegiko kalitate batzordeak babestutako proiektua, eta, beraz, graduen garapenerako lehentasunezko lerro berritzailea.

- Docentiaz programan parte hartu duten irakasleak (deialdiak: I, II, III y IV). (gehienez 10 puntu).
- Proiektua aurkeztu duen taldearen ezaugarriak (gehienez 10 puntu): irakasle talde aktiboak (ikastegiak aitortuak) edo ondoko ezaugarriak dituzten lan taldeak: diziplinartekotasuna, hizkuntzak, generoa... eta irakaskuntza berrikuntzan lehendik esperientzia izandakoak).
- Beste alderdi nabarmen batzuk (gehienez 5 puntu).

4.4- Esleipen Batzordea hauek osatuko dute: a) Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordeak, b) Ikerketa errektoreordeak edo haren eskuordeak c) SAE/HELAZeko zuzendariak. Batzorde honek erabakiko du zein proiektuk jasoko duten laguntza eta laguntza hori zenbatekoa izango den.

4.5- Laguntzak jasoko dituzten proiektuak aukeratzeko kontutan hartuko dira eskatutako aurrekontua, lortutako puntuazioa eta dagoen aurrekontu zuzkidura.

4.6- Erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabete bateko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116 eta 117. artikuluek dioten moduan. Halaber, erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, erabakia argitaratu eta bi hilabetera, gehienez.

## 5. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA FINANTZAKETA

5.1.- Deialdi honetarako aurrekontu osoa 2014ko Programa Kontratuan ezartzen den zenbatekoan oinarrituta zehaztuko da.

5.2- Deialdi honen bitartez ez da azpiegitura (material inbentariagarria) finantzatuko; azpiegitura eskari horiek beste bide batzuetatik egin behar dira. Proiektuan laguntzeko langile eskariak ere (elkarlanerako diru-laguntzak, aholkularitza teknikoa, e.a.) ez dira onartuko.

5.3- Jasotako diru-laguntza honako hauek ordaintzeko izango dira: material suntsikorra, proiektua gauzatzeko prestakuntza berezia, material bibliografikoa, RED-Un edo antzekoetan bazkide-kuota, HBPko emaitzen aurkezpena unibertsitate irakaskuntzarekin zerikusia duten biltzar eta ekitaldietan (beste diru-laguntzarik ez badute, betiere), eta emaitzen argitalpena.

5.4- HBPren gastuak zehaztapen hauen arabera gestionatu behar dira:

5.4.1 Fakturek bat etorri behar dute UPV/EHUko kontularitza arauekin.

5.4.2 Material suntsikorra Unibertsitatearen enpresa esleipendunetan bakarrik erosi daiteke.

5.4.3 Bidaiak enpresa esleipendun kontratatu behar dira.

5.4.4 Bibliografiarako diru-laguntza behar duten proiektuek eskarian premia hori daukatela adierazi behar dute, baita arlo horretan ze gastu egingo duten ere. Baldintza hori betetzen ez duten proiektuetan ez da bibliografiako fakturarik onartuko. Edozein modutan, bibliografia 2014an erosi behar da nahitaez, eta fakturak 2014ko martxoa eta azaroa bitartean bidali behar dira.

5.5- Fakturretan koordinatzailearen onespenuk agertu behar du. Koordinatzaileak, fakturak behin sinatuta, SAE/HELAZen entregatu behar ditu (Beatriz Ferrererentzat direla adierazita), dagokien urte naturalean (2014koak martxotik abendura eta 2015ekoak urtarriletik uztaila amaierara).

## 6. DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEKO ARRAZOIAK

Laguntza emateko aintzat hartu ziren baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, jasotako dirua bueltatu egin behar zaie EHUko Zerbitzu Nagusiei.

## 7. ONARTUTAKO PROIEKTUEN SEGIMENDUA, ZIURTAPENA ETA HEDAPENA

7.1- Onartutako proiektu bakoitzari SAE/HELAZeko taldeko kide bat egokituko zaio, proiektua errazago garatu ahal izateko.

7.2- HBPko koordinatzaileak zaindu behar du taldeak behar bezala egiten duela lan. Horren harian, taldekideen bajak idatziz eskatu behar zaizkio SAE/HELAZeko zuzendariari eta justifikatuta egon behar dute. Eskari horien gaineko erabakia hartu eta ziurtagiria eman SAE/HELAZek egingo ditu.

7.3- Proiektua bukatutakoan, hau da, 2015eko abendua amaitu baino lehen, txosten bat aurkeztu behar da, 2.eranskinean agertzen den amaierako ereduari jarraituz eta gehienez 10 orrialde izanez.

7.4- Ziurtagiria. SAE/HELAZek azken txostena baloratu ostean, programaren baldintzak betetzen dituzten UPV/EHUko irakasleak diren taldekideek ziurtagiri bana jasoko dute, HBPetan parte hartu dutela egiaztatzeko.


7.5- Emaitzak hedatzea. Azken txostena entregatu ondoren SAE/HELAZek unibertsitate komunitatearentzat interesgarriak izango diren proiektuen emaitzak zabaltzeko aukera aztertuko du. SAE/HELAZek berak zabaltzeko bidea hautatuko du.

## AZKEN XEDAPENA

Interesatuak deialdiaren, deialdiko oinarrien eta deialditik eratorritako administrazio egintzen aurka egin dezakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen legean ezarritako epean eta moduan.

Leioan, 2013ko urriaren 14an.

Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordea

A circular official stamp in blue ink. The outer ring contains the text "GRADU IKASKETEN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDEA" at the top and "VICERRECTORADO DE ESTUDIOS DE GRADO E INNOVACIÓN" at the bottom. The inner ring contains "UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO" and "EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA". In the center of the stamp is the logo of the University of the Basque Country. Overlaid on the stamp is a handwritten signature in blue ink that reads "Amaya Zárraga Castro".

Amaya Zárraga Castro

## CONVOCATORIA DE PROYECTOS DE INNOVACION EDUCATIVA 2013-15

El Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación de la UPV/EHU, mediante esta convocatoria, pretende, potenciar proyectos que el profesorado esté dispuesto a llevar a cabo, orientados fundamentalmente a promover acciones para la innovación educativa dentro del modelo IKD (ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa/ aprendizaje dinámico y cooperativo) (<http://www.ikasketa-berrikuntza.ehu.es/p272-shikdhm/es/>).

Esta convocatoria queda regulada por la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda del País Vasco, particularmente (Título VI) en lo que hace referencia al régimen de ayudas y subvenciones de la administración pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### 1. ALCANCE DE LA CONVOCATORIA

1.1- Todo proyecto que se presente a esta convocatoria debe proponer una contribución a la innovación educativa en nuestra Universidad por medio de una propuesta de intervención innovadora. Se entiende por innovación educativa la **puesta en práctica** de una idea que busque mejorar y favorecer los procesos de enseñanza-aprendizaje de los estudiantes desde la perspectiva IKD, así como producir conocimiento sistemático y reflexionado sobre el citado proceso de acción.

1.2- En esta convocatoria de proyectos de innovación educativa se exigirá como **condiciones obligatorias**:

a) que todos los proyectos se dirijan a la puesta en marcha con el alumnado de propuestas innovadoras que directamente favorezcan los procesos de enseñanza-aprendizaje universitarios.

b) que los proyectos se desarrollen por equipos de trabajo formados por docentes que comparten docencia en un curso, módulo o materia de una titulación o diferentes titulaciones, siendo el coordinador/a del proyecto un docente de la UPV/EHU.

1.3.-Se tendrán especialmente en cuenta aquellos proyectos que:

-estén compuestos por profesorado que haya participado y haya sido evaluado en el programa Docentiaz en cualquiera de sus convocatorias.

- presenten el aval de la Comisión de Calidad del centro en el que se vaya a desarrollar la innovación; entendiéndose, en consecuencia, que tienen un carácter institucional y que son acordes con las políticas de desarrollo de los grados marcadas en el programa EHUNDU y con el Plan Estratégico 2012-2017 de la UPV/EHU.



- cuenten con la participación de profesorado novel (aquellos que llevan menos de cinco años como docentes en la universidad), alumnado, profesionales externos y/o profesorado de otras universidades.

1.4- En esta convocatoria los **temas** a impulsar y las **líneas prioritarias** en cada uno de ellos son:

Temas	Líneas prioritarias
Proyectos dirigidos a experimentar el uso de las metodologías activas de aprendizaje con los estudiantes (método de casos, Aprendizaje Basado en Problemas, Aprendizaje Basado en Proyectos...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Equipos de trabajo que diseñen, implementen, promuevan y divulguen una metodología activa entre su alumnado a través de <b>acciones interdisciplinares de curso/módulo</b> (el coordinador/a será un docente acreditado por el SAE en metodologías activas.</li> <li>- Equipos de trabajo (p.e. de asignatura) que promuevan, implementen y evalúen el <b>uso</b> de materiales validados en metodologías activas (el coordinador/a será un docente acreditado por el SAE en metodologías activas.</li> </ul>
Proyectos que impulsen aspectos relacionados con el desarrollo de competencias transversales (comunicación, género, ética, inteligencia emocional, trabajo en equipo, emprendizaje, sostenibilidad...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Equipos docentes activos<sup>2</sup> (Grado, Curso/módulo), o aquellos que iniciarán su actividad a corto plazo, y que cooperativamente aborden el diseño, desarrollo y evaluación de las competencias transversales.</li> </ul>
Proyectos que impulsen el aprendizaje autónomo del alumnado en estudios de grado.	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Equipos Docentes de una o varias asignaturas que intenten diseñar, desarrollar y evaluar procesos de aprendizaje activo y autónomo. (Juegos de rol, Simulaciones, Aprendizaje basado en la investigación <i>Inquiry based learning</i>,...)</li> </ul>
Proyectos que favorezcan el desarrollo curricular a lo largo de los grados de una forma innovadora.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Equipos de trabajo que diseñen e implementen la acción tutorial dirigida al aprendizaje del alumnado</li> <li>- Equipos de trabajo que diseñen, pongan en práctica y evalúen, según los casos, el Trabajo de Fin de Grado, las prácticas externas del alumnado...</li> </ul>

<sup>2</sup> Se entiende por Equipo docente activo aquél que ya ha empezado a trabajar en el desarrollo de las competencias transversales y que trabajan con el liderazgo de un coordinador o coordinadora acreditado previamente en el programa *Irakasle taldeak koordinatzeko prestakuntza/ Formación para la coordinación de equipos docentes.* ([http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/files/2011/05/Formac\\_coord.EHUNDU\\_global1.pdf](http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/files/2011/05/Formac_coord.EHUNDU_global1.pdf))

1.4- Quedan excluidas de esta convocatoria las propuestas referentes directamente a la adaptación de las asignaturas a los criterios de Convergencia con el Espacio Europeo de Educación Superior así como las experiencias de coordinación funcional y organizativa de asignaturas ECTS a cursos completo.

1.5- No se admitirán aquellos proyectos que traten temáticas previamente desarrolladas por el equipo solicitante y que hayan sido ya objeto de subvención en convocatorias previas.

## 2. SOLICITUDES

2.1- La presentación de cada proyecto ha de estar sustentada en un equipo de profesores/as de la UPV/EHU, uno de cuyos componentes asumirá la coordinación del equipo y actuará como solicitante y también como enlace con el SAE/HELAZ.

2.2- Los proyectos tendrán la duración de los cursos académicos 2013-15.

2.3- No podrán presentarse a la presente convocatoria aquellos profesores/as que estén trabajando en un PIE aún en vigor (convocatoria 2012-2014).

2.4- Un mismo profesor/a no podrá participar en más de un PIE de la misma convocatoria.

2.5- El plazo de presentación de solicitudes finalizará un mes después de la fecha de publicación de la presente convocatoria en el tablón de anuncios del Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación y en los tablonés de anuncios (ehutaula) de los Vicerrectorados de Campus, correspondiendo esta fecha con la de la firma de la convocatoria.

2.6- Transcurridos diez días naturales desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes, el Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación publicará en su tablón de anuncios, así como en los tablonés de anuncios electrónicos (ehutaula) de los Vicerrectorados de Campus, el listado de solicitudes completas e incompletas con expresión concreta de los datos que falten para que sean subsanados. Los solicitantes dispondrán de un plazo de diez días naturales, a partir de la fecha de publicación de dicha lista, para completar la documentación. Las solicitudes con deficiencias no subsanadas se entenderán como desestimadas.

2.7- La subvención recibida para los PIE no es compatible con otras ayudas de otras entidades para los mismos objetivos.

2.8- Los proyectos deberán contemplar, en una extensión máxima de 10 páginas, los apartados especificados en el modelo de solicitud (Anexo 1).

2.9- Las solicitudes irán dirigidas a la Directora del Servicio de Asesoramiento Educativo (SAE/HELAZ), habiendo de ser presentadas a su debido tiempo en cualquiera de los registros oficiales de la UPV-EHU, así como en cualquiera de los lugares indicados en el artículo 38.4 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Asimismo se hará llegar una copia electrónica de toda la documentación a la siguiente dirección: [sae-helaz@ehu.es](mailto:sae-helaz@ehu.es)

### 3. PUBLICIDAD

Se garantizará una adecuada información a los potenciales beneficiarios de esta convocatoria utilizando al menos los siguientes procedimientos:

3.1- Publicación en el tablón de anuncios del Vicerrectorado de Estudios de Grado e Innovación.

3.2- Publicación en los tabloneros de anuncios electrónicos (ehutaula) de los Vicerrectorados de los campus de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

3.3- Difusión a través de la página web del SAE/HELAZ (<http://www.ehu.es/ehusfera/helaz/>).

### 4. EVALUACION Y RESOLUCION

4.1- La adjudicación de las ayudas se realizará por resolución de la Vicerrectora de Estudios de Grado e Innovación en el plazo máximo de tres meses tras finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

4.2- Se constituirá una Comisión de Evaluación formada por profesorado universitario de reconocido prestigio en el ámbito de la innovación educativa que no pertenecerá a la UPV/EHU. El objetivo de esta comisión es emitir un informe que será tenido en cuenta por la Comisión de Adjudicación de las ayudas.

4.3- Los proyectos serán valorados de acuerdo con el siguiente procedimiento:

- a) Cumplimiento de los requisitos obligatorios señalados en el apartado 1.2. La valoración positiva de estos requisitos es condición indispensable para pasar a la fase de valoración por criterios.
- b) Criterios de puntuación:
  - Planteamiento y adecuación del proyecto a los temas y líneas prioritarias señaladas en el apartado 1.4 (hasta 40 puntos).
  - Carácter innovador (hasta 20 puntos): originalidad, repercusión en el aprendizaje dinámico y cooperativo de los estudiantes (IKD), adecuación al contexto de actuación y viabilidad.

- Carácter institucional (hasta 15 puntos): proyecto avalado por la Comisión de Calidad del centro y que representa por tanto una línea prioritaria de innovación para el desarrollo de los Grados.
- Profesorado participante en el programa Docentiaz (convocatorias I, II, III y IV) (hasta 10 puntos).
- Características del equipo que presenta el proyecto (hasta 10 puntos): equipos docentes activos (reconocidos por el centro) o equipos de trabajo cuya composición atienda a características como: multidisciplinariedad, perfiles lingüísticos, género... y trayectoria previa en innovación educativa).
- Otros aspectos remarcables (hasta 5 puntos).

4.4- Compondrán la Comisión de Adjudicación de las ayudas las siguientes personas: a) la Vicerrectora de Estudios de Grado e Innovación; b) el Vicerrector de Investigación o persona en quien delegue c) la Directora del SAE/HELAZ. Esta comisión decidirá los proyectos que recibirán las ayudas así como la cuantía de las mismas.

4.5- La selección de proyectos para la adjudicación de las ayudas dependerá del presupuesto solicitado, de la puntuación obtenida, y de la dotación presupuestaria disponible.

4.6- La resolución podrá ser recurrida en reposición en el plazo de un mes, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Asimismo, contra la citada resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación.

## 5. CONDICIONES ECONOMICAS Y FINANCIACION

5.1- El presupuesto total para esta convocatoria se determinará, en función de la cantidad que sea dotada del Contrato Programa de 2014.

5.2- No se contemplará, dentro de la presente convocatoria, la financiación para aquellos proyectos en los que se incluyan solicitudes de infraestructura (material inventariable), que deberán canalizarse por otras vías. Tampoco se atenderán peticiones relativas a personal de apoyo (becas de colaboración, asesorías técnicas etc.) del proyecto.

5.3- La subvención concedida permitirá atender gastos correspondientes a material fungible, formación específica para la realización del proyecto, material bibliográfico, cuota de socio en RED-U o similares, presentación de resultados relativos al proyecto en congresos y eventos de docencia universitaria que no disfruten de otro tipo de subvención, y publicación de resultados.

5.4- La gestión de los gastos relativos de los PIE deberá realizarse siguiendo las siguientes especificaciones:

5.1 Las facturas deberán cumplir las normas contables de la UPV/EHU.

5.2. Las compras de fungibles deberán hacerse exclusivamente en las empresas adjudicatarias de la Universidad.

5.3 Los viajes deben contratarse a través de la empresa adjudicataria.

5.4 Los PIE que precisen subvención para bibliografía, deberán reflejarlo en su solicitud, así como el importe aproximado que van a destinar a este gasto. No se aceptarán facturas de bibliografía en los Proyectos que no cumplan este requisito. En cualquier caso, la compra de bibliografía deberá realizarse obligatoriamente en el 2014, remitiendo las facturas para su abono en las fechas comprendidas entre marzo y mediados de noviembre de ese año.

5.5- Las facturas deberán llevar el Vº Bº del Coordinador/a, quien, una vez firmadas, las entregará obligatoriamente para su abono en el SAE/HELAZ (a la atención de la Beatriz Ferrer) dentro del año natural de su facturación (las del año 2014, a partir del mes de marzo hasta diciembre de ese año; y de enero hasta finales de julio las del año 2015).

## 6. CAUSAS DE REINTEGRO DE LA SUBVENCION

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la ayuda dará lugar a la obligación de reintegrar a los Servicios Centrales de la UPV/EHU las cantidades percibidas.

## 7. SEGUIMIENTO, CERTIFICACIÓN Y DIFUSIÓN DE LOS PROYECTOS APROBADOS

7.1- A cada proyecto aprobado se le asignará un miembro del equipo del SAE/HELAZ en orden a facilitar el desarrollo del mismo.

7.2- El coordinador/a del proyecto deberá velar por el buen funcionamiento del equipo de trabajo. En este sentido, las bajas de miembros del equipo deberán ser solicitadas por escrito a la Directora del SAE-HELAZ, debiendo estar debidamente justificadas. Queda a criterio del SAE-HELAZ la resolución de dichas solicitudes, así como la acreditación correspondiente en cada caso.

7.3- Al finalizar el proyecto PIE, es decir, antes de finalizar el mes de diciembre de 2015, resultará preceptiva la presentación de un informe que no supere las 10 páginas, siguiendo el modelo de informe final que aparece en el Anexo 2.

7.4- Certificación. A cada uno de los docentes de la UPV/EHU, miembros de los equipos que cumplan con las condiciones del programa, se le expedirá un documento acreditativo de su participación en el PIE, una vez valorado por el SAE-HELAZ el informe final.

7.5 Difusión de los resultados. Una vez entregado el informe final, el SAE-HELAZ valorará la posibilidad de difundir los resultados de los proyectos que puedan tener interés para la comunidad universitaria a través de la vía que considere oportuna.

## DISPOSICION FINAL

La Convocatoria y sus Bases, y cuantos actos administrativos se deriven de ésta, podrán ser impugnados por el interesado en el plazo y en la forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común y la Ley de Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Leioa, a 14 de octubre de 2013

La Vicerrectora de Estudios de Grado e Innovación



Amaya Zárraga Castro